

## **GASTEIZ IJITOENGANAKO HIZKERA BAZTERTZAILEAREN AURKAKO KANPAINARA BATU DADIN PROPOSATU DU EAJ-PNVK RAEren hiztegiak esanahi negatiboa duen "gitano/a" hitzaren adierak alda ditzan planteatu du Nerea Melgosak**

Vitoria-Gasteizko Udaleko EAJ-PNV Taldeak mozio bat aurkeztu du datorren ostiraleko Osoko Bilkurarako. Bertan udaletxea Secretariado Gitano fundazioak ijitoenganako bazterkeriazko hizkera erabiltzearen aurka gauzatzen duen sentsibilizazio kanpainara batu dadin planteatzen da. Era berean, *Real Academia Española de la lengua* bere hiztegian "gitano" eta "gitana" hitzek dituzten adierak aldatzeko eskatzea ere proposatu du Eusko Alderdi Jeltzaleak, aurreiritzi negatiboak sorrarazi ditzaketanak baztertuz.

"Ijitoen elkarteek dioten legez, definizio baztertzaile batek bazterkeria dakar. Hizkera berebizikoa da ijitoen erkidegoak gizartean duen irudia estereotipoz betea izan ez dadin. Hori dela-eta, Gasteiz duela urte askotatik ijitoak gizarteratzearekin konprometitutako hiria denez, gaztelania erabiltzeko arauak ezartzen dituztenei aldaketa eskatzea nahi dugu, bazterkeriarik egon ez dadin", adierazi du Nerea Melgosa zinegotzi jeltzaleak.

Real Academiak "gitano" eta "gitana" hitzen definizio baztertzaileak ekiditeko eskaera ugari jaso dituen arren, haren hiztegiaren azkeneko edizioak ondorengo adiera dakar hitz horren esanahien artean, testu eta guzti: "*trapacero; que con astucias, falsedad y mentiras procura engañar a alguien en un asunto*". Udalak adiera hori aldatzeko eska dezan eta Secretariado Gitano fundazioak bultzatutako kanpainaren "Definizio baztertzaile batek bazterkeria dakar" leloa hedatzen lagun dezan planteatu du EAJ-PNVk.

Nerea Melgosak gogorarazi duenez, ijitoak gizarteratzea EBko Ministroen Kontseiluak eta Europako Kontseiluak 2011z geroztik babesten duten helburua da eta helburu hori lortzeko beharrezkoak diren lau lan-eremuetako bat hezkuntza da. "Hezkuntza-lanaren alderdi garrantzitsua da hizkera, ijitoak gizarteratzeko beharrezko

VITORIA  
GASTEIZ  
HAZI  
ARAZI



HACER  
CRECER  
VITORIA  
GASTEIZ

## PRENTSA OHARRA

NOTA DE PRENSA

tresna izanik. Erakunde guztiek lagundu behar dute hizkera ahalik eta inklusiboen  
izan dadin”, bukatu du zinegotzi jeltzaleak.

Gasteizen, 2015eko apirilaren 20an